Lan-eskaintzen erregistroa 2021eko irailean

ERREGISTRATUTAKO LAN-ESKAINTZA KOPURUA

2021eko irailean Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopurua 1.324 izan da, abuztuan baino 700 gehiago eta joan den urteko irailean baino 502 gehiago. Egunean bataz bestez 60 eskaintza erregistratu dira, aurreko hilean baino 32 eskaintza gehiago egunean.

• LURRALDE HISTORIKOAK

Kudeaketako Administrazio Unitatearen (KAU) lurralde historikoari erreparatuz, 2021eko irailean 195 lan-eskaintza erregistratu dira Araban, 512 Gipuzkoan eta 617 Bizkaian. Lan-eskaintzen % 38,7 Gipuzkoako KAUetan erregistratu dira, % 46,6 Bizkaikoan eta % 14,7 Araban.

Eskaintzaren Lurralde Historikoa



Aurreko hilabetearekin alderatuz, Araban % 71 hazi dira eskaintzak (81 eskaintza gehiago); Gipuzkoan % 90,3 (243 eskaintza gehiago) eta Bizkaian, hazkundea % 156koa izan da (376 gehiago).

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, Araban 71 eskaintza gehiago erregistratu dira, % 57,3ko hazkundea; Gipuzkoan % 56,6 hazi dira (185 eskaintza gehiago), eta azkenik, Bizkaian hazkundea % 66,3koa izan da (246 eskaintza gehiago).

• LAN-ESKAINTZAKO LANBIDEA

Bost lanbide-profilek biltzen dituzte EAEn erregistratutako lan-eskaintza gehienak. % 19,7a zientzia teknikarien profilerako erregistratu dira (261 eskaintza); eta, % 19,1a industriako profilerako (253 eskaintza). Zerbitzuetako, tekniko laguntzaileen eta ez kualifikatuen profileko lan eskaintzek, ere, pisu nabarmena dute; 233, 216 eta 153 eskaintza erregistratu dira, hurrenez- hurren. Lan-eskaintza gutxien erregistratu diren profilak, lehen sektorekoak eta zuzendariak izan dira, 14 eta 7 eskaintza hurrenez hurren.

Aurreko hilabeteko datuekin alderatuz, eskaintza guztiak hazi dira. Balore absolutu eta erlatiboetan gehien hazi den profila industriakoa izan da (184 eskaintza gehiago, % 266,7ko hazkundea).

Urte arteko saldoari erreparatuz, eskaintza guztiak hazi dira zuzendarienak izan ezik; hauek 1 gutxiago erregistratu dira. Balore absolutuetan, industriako profileko eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (105 eskaintza gehiago, % 70,9ko hazkundea); balore erlatiboetan, aldiz, laguntzako teknikarien profilekoak izan dira (% 92,9ko hazkundea, 104 eskaintza gehiago).

• KONTRATU MOTA



Erregistratutako lan-eskaintzen % 16,6k kontratu mugagabea eskaini dute; % 82,6k, aldi baterakoa, eta, gainontzeko % 0,8ak, merkataritzakoa. Balio absolutuetan, kontratu mugagabeen eskaintzak 219 izan dira, aurreko hilabetean baino 135 eskaintza gehiago. Aldi baterako kontratuak eskaini dituzten 556 eskaintza gehiago erregistratu dira: 1.094 eskaintza izan dira guztira. Kopuru erlatiboetan hazkundea % 103,3koa izan da. Azkenik, merkataritzako kontratuen eskaintzak 2021eko irailean 11 izan dira, aurreko hilean baino 9 gehiago.

Urte arteko saldoari dagokionez, kontratu mugagabeen eskaintzak 111 gehiago izan dira (% 102,8ko hazkundea), aldi baterako kontratuen eskaintzak % 54,5 hazi dira; 386 eskaintza gehiago, eta, merkataritzako kontratuetan, 5 eskaintza gehiago erregistratu dira.

• ESKATUTAKO ESPERIENTZIA-DENBORA



2021eko irailean erregistratutako lan-eskaintzen 3 laurdenek (990 eskaintza, % 74,8) 0tik 6 hilabetera arteko esperientzia minimoa eskatzen dute. Eskaintzen % 12,2k (161 eskaintza) esperientzia-denbora luzeagoa eskatzen du, 6 hiletik 12ra artekoa. Portzentaia txikiagoak dituzte esperientzia-denbora luzeagoak eskatzen dituzten eskaintzek; 3 urtetik 5 urtera eskatzen dutenek % 2,6ko pisua dute (34 eskaintza) eta 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen dutenen pisua % 0,9koa da (12 eskaintza).

Hilabete arteko eboluzioari dagokionez, eskaintza guztiak hazi dira. Gehien hazi direnak, balore absolutuetan, 0 eta 6 hilabete arteko denbora eskatzen duten eskaintzak izan dira (509 eskaintza gehiago, % 105,8ko hazkundea); aldiz, balore erlatiboetan, 5 urtetik gorako esperientzia eskatzen duten eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (% 500eko hazkundea, 10 eskaintza gehiago).

Urte arteko eboluzioari dagokionez, 6 hilabete arteko esperientzia denbora eskatzen dutenak izan dira ere hazkunde handiena izan dutenak balio absolutuetan (382 eskaintza gehiago, % 62,8ko hazkundea); balore erlatiboetan, ordea, 5 urte baino gehiagoko esperientzia eskatzen duten eskaintzak izan dira gehien hazi direnak (% 300eko hazkundea, 9 eskaintza gehiago).

Erregistratutako eskaintzek, batez beste, 6 hileko esperientzia eskatzen dute, abuztuan baino hilabete bat gehiago.

• LANALDI MOTA

Analisiarekin jarraitu baino lehen, esan beharra dago ez dutela erregistratutako eskaintza guztiek zehazten zein izango den lanaldi mota: soilik eskaintzen % 11,2k zehazten du datu hori (1.324 eskaintzetatik 148). 148 eskaintza horietatik, 98 lanaldi osoa eskaintzen dutenak izan dira, eta, gainontzeko 50ek, lanaldi partziala eskaini dute.



Eboluzioari dagokionez, lanaldi osoko eskaintzak 45 gehiago izan dira abuztuarekin alderatuz, hau da, % 84,9 hazi dira. Lanaldi partzialeko eskaintzak, berriz, 35 gehiago izan dira; hazkundea erlatiboa % 233,3koa izan da.

Aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuz, eboluzioa hurrengoa da: lanaldi osoko eskaintzak 6 gutxiago izan dira (% 5,7ko murrizketa), eta lanaldi partzialeko kasuan, 19 eskaintzakoa izan da hazkundea (% 61,3ko hazkundea).

• ALDI BATERAKO LANERAKO ENPRESAK (ABLE)

Hil honetan 11 lan eskaintza kudeatu dira ABLEn bitartez, aurreko hilean baino 6 eskaintza gehiago eta aurreko urtean baino 9 gehiago.

• ESKATUTAKO PRESTAKUNTZA MAILA

Adierazle honi buruzko datuak ere ez dira beti zehazten lan-eskaintzak erregistratzeko orduan. Eskaintzen % 84,6k ez du zehazten zein den eskatutako prestakuntza maila minimoa: 1.324 eskaintzetatik 204k soilik zehaztu dute.

204 eskaintza horietatik, 89 LHko prestakuntza maila eskatu dute; ikasketa maila hau duten eskaintzak izan dira ugarienak. Ondoren, unibertsitateko eta oinarrizko ikasketa mailak eskatzen dituztenak daude, 61 eta 38 eskaintza erregistratu dira, hurrenez hurren. Azkenik, batxilergoko ikasketak eskatzen dutenak daude (16 eskaintza).

Hilabete arteko erlazioari erreparatuz, eskaintzak talde guztietan hasi dira. LHko ikasketak eskatzen dituzten eskaintzak izan dira gehien hazi direnak, bai balore absolutuetan bai balore erlatiboetan (73 eskaintza gehiago, % 456,3ko hazkundea).

2020ko irailarekin alderatuz ere, eskaintza mota guztiak hazi dira. LHko ikasketak eskatzen dituztenak izan dira gehien hazi direnak balore absolutuetan (31 eskaintza gehiago, % 53,4ko hazkundea); aldiz, balore erlatiboetan, oinarrizko ikasketak eskatzen dituzten eskaintza izan dira gehien hazi direnak (% 171,4ko hazkundea, 24 eskaintza gehiago).

• ESKAINTZAREN JARDUERA

EAEko enplegu-bulegoetan erregistratutako lan-eskaintzen kopuruari dagokionez, gehien nabarmentzen dena manufaktura industria izan da; honen pisua eskaintza guztien % 13,7koa izan da (181 eskaintza). Nabarmentzeko beste jarduera batzuk merkataritza, eraikuntza eta osasun jarduerak izan dira, eskaintzen % 13,1, % 10,4 eta % 8,4ko pisuarekin (174, 137 eta 111 lan-eskaintza, hurrenez hurren).

Aurreko hilari erreparatuz eskaintza ia denak hazi dira; salbuespen bakarra ostalaritzan gertatu da, 13 eskaintza gutxiago izan baitira (% 13ko beherakada). Balio absolutuetan gehien hazi direnak manufaktura-industriako eskaintzak izan dira (116 eskaintza gehiago, % 174,8ko hazkundea); aldiz, balore erlatiboetan, bilakaera hoberena izan dutenak finantza jarduerako eskaintzak izan dira (% 650eko hazkundea, 13 eskaintza gehiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz, ia eskaintza guztiak hazi dira ere; salbuespena garraioa izan da (7 eskaintza gutxiago, %21,9ko beherakada). Bilakaera hoberena izan duten eskaintzak, balore absolutuetan, merkataritzakoak izan dira (66 eskaintza gehiago, % 614,1eko hazkundea); balio erlatiboetan, aldiz, nekazaritzakoak izan dira (% 400eko hazkundea, 12 eskaintza gehiago).